



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko martxoaren 15a. 32. zenbakia. Dohain banatzen da.



**KRISI INDUSTRIALAREN
GORA-BEHERAK**

**Oraindik AIURRI
aldizkaria
etxean jasotzen
ez baduzu zeren
zain zaude?!**

Deitu telefono honetara



30 07 32

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Txomin Garmendia: "Zer ote da zaartzea?"
2. **GALDEZKA.**
Eta zuri, zer iruditzen zaizkizu hauteskundeetako emaitzak?
3. **ADUNA.**
Inauterietako kafe-antzoki berezia.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Argazki erakusketa amaitzean.
Kultura kontseiluaren bilera.
Euskal Herrian Euskaraz taldearen asmoak.
7. **ASTEASU.**
Hamabi etxebizitza berri datorren urterako.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Armatroste Gurutze Gorriaren hitzarmenaren aurka.
10. **ZIZURKIL.**
Udal intsumisoen auzia.
11. **ENPRESA.**
Lixoné, bertako xaboia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Krisi industrialaren gora-beherak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Olga Bidaureta billabonatarrekin solasean.
- 16-17. **KULTURA.**
Andoaingo Iratxo musika taldea.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Iñaki Otamendi. **Banaketa arduraduna:** Inosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legogordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Zer ote da zaartzea?



TXOMIN GARMENDIA

Zer ote da zaartzea? Galdera ori askotan entzuten degu eta egiten degu: baiña, bai al dago egin bearririk? Gazteak ondo ikusten dituzte zaartzaroaren alderdiak eta zaartzaroaren atarira iritsi geranak herriz, ainbat obetogo. Orduan...!

Baiña auda arrigarria: ez degu ezagutu nai-edo, ez degu aitortu nai zaartu geranik. Zaartu gerala baiña biotza gaztea daukagula eta ez dakit zer egingo gen-dukela, eta or esango ditugu milla tentelkeri eta ez gera konturatz-geure burua bakarrik engainatzen degula.

Anka bat erreumak arturik eta ezin ibillirik aitona jarri zenean, sendagillearengana eramán omen zuten: sendagilleak ondo ikusi zunean aitona:

- Urteak aitona urteak... Oieki ez dute barkatzen.

Aitonak:

- Beste anka onek ere baditu-ba, orrek ainbat urte eta ondo daukat.

Sendagilleak:

- Arbola ere adarretatik asten da igartzen: lendabizi adar bat, gero bestea eta orrela.

Aitonak:

- Arrazoi izango du bai: nik ere badaukat adar bat aspaldi igar-tuta dagoena.

Buru alde sano zeukan orratik, aitona gizarajoak. Ark ere ezin ezagutu ordea bere zaardatea.

Lazkao Txiki zanak (G.B), il zan aurreko Santiotan onela esan zidan:

- Aurten etzidatek Billabona tik deitu. "Neri ere etzidatek dei-tu", erantzun nion: baiña naiko penetan zegola, antzematen zi-tzaion.

Azken utetan, Billabona rako deirik ez det izan Santiotan: pentsatu izan det, zer oker eginda ote nago ni, Billabona n bizi-ta, bertsoetarako deirik ez izateko? Ezin konturatu nunbait zaartu nai-zela. Uztapide bat ere, bazan norbait bertso-lanean: ara zer kanta-tu zun beingo batean:

"Badakizute gure indarrak

ari dirala gutsitzen,

gaurko gazte askoren ondoan

ez da erreza luzitzen,

Derrior asi bearra nago

erri batzuek utzitzen;

baiñan gustoa daukazutenak

lagun zazute bizitzen".

Gaurko gazte askoren ondoan, ez da erreza ez luzitzen. Zaar batek egin lezaken eskaririk jatorrena berriz, bizitzen laguntzeko eskatzea da. Zorionez, aitortu bearra daukat, ez naizela iritsi ortaraiño; urtearen aurrenetik azkenera dei pranko ere badauzkat, eta, pozik onenbestean.

Gaur, lenago etziran laguntza asko daude: Gobiernotik, Udal-letxetik eta abar, zaar jendearentzako; baiña, etxe aldetik? Ainbes-te Zaar-Etxe edo Egoitza egin bearririk bai al zegon, zaarrak bear bezela saia gaitezen eta askoz jatorragoak izango gera.



Aldizkari honek Euzko Ikasketa Institutuko Kulturaren Laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturaren Laguntza jasotzen du.

ETA ZURI, ZER IRUDITU ZAIZKIZU HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK?

Gehienontzat urruti samar geratzen dira martxoaren hiruko oroitzapenak, komunikabideetan haren arrastoa etengabe entzun eta irakurtarazten badigute ere. Politika gizon eta emakumeak eztabaidan etengabe ari dira, eta oraindik ere luze jarraituko dutela pentsatzen dugu. Ezingo dugu

ukatu, gertaerak berez, izan eta oraindik ere daukan garrantzia. Eta horregatik, eta politikariek dioten bezala, guk ere herritarren iritzia ezagutu nahi izan dugu. Iritziak bilatu ditugu soil-soilik, horren truke beste herritarrei pentsatzen dutena ezagutzera ematearen truke, besterik gabe.



Paul Ortega,

Nik ez dut horri buruz ulertzen. Hala ere, nahiko argi zegoen PPK irabaziko zuela. Neri emaitzak ez zaizkit asko gustatu. Euskal Herriko eta herriko emaitzei ez diet arreta handirik eskaini. Nik, hala ere, beti ematen diet botoa hemengo alderdiei.



Epifanio Martín,

Ni ez nago ez batekin ez bestearekin conforme, baina garbi zegoen, aldaketa zetorrela; gauzak oso gaizki jartzen ari ziren. Nik hirurogeita hamabi urte dauzkat, eta lehen ere berdin gertatu izan da: batzuk gauzak gaizki egiten hasten direnean, aldaketa dator orduan, eta gainera, horrela izan behar du.



Ibon Goenaga,

Esan eta esan ari ziren, baina ez nuen PPK irabaztea espero. Sorpresa hartu dut. Euskal Herriko emaitzak gutxi gorabehera, nik uste nituen bezala atera dira. Hala ere, nik ez dut bozkatu.



Leire Beraza,

Espania mailan espero nituen emaitza horiek: pentsatzen nuen PPK irabaz zezakeela. Hemengo emaitzek harritu naute pixka bat. Nik botoa eman dut, baina ez naiz emaitzeekin oso conforme gelditu. Ia ezinezkoa da, hala ere, hauteskundeetan conforme gelditzea.



Felipa Martín,


Ni ez naiz batere aditua gai horretan. Berdin zait bata edo bestea egon. Hori bai, esaten dutena, bete egin beharko luketela iruditzen zait, askotan ez baitute egiten. Etorkizun hobe ala okerragoa izango dugun ezin dut aurreratu.



Amaia Sánchez,

Estatu mailan iruditzen zait gauzak ez daudela oso argi. Ez dago gehienagorik, eta boterea nahikoa banatuta dago. Euskal Herri mailako egitasmoak finkoagoak iruditzen zaizkit. Bestakde, aipatzekoa da, *felipismoa* ez dela bukatu, eta dirudienez, ez dago bera ordezkatzuko duen lider indartsuagorik.

ALFARO JATE TXEA
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

INAUTERIETAKO KAFE-ANTZOKI BEREZIA

Eskolako haur guztiek antzeztu zuten

Inauterietako ostiral mehean, eskolako gimnasioa kafe-antzoki bihurtu zen. Horretarako, mantelez estalitako mahaiak, kandelak eta taberna txiki bat jarri zuten. Gurasoei eta herri-tarrei gonbidapenak banatu zitzaizkien, eta edariren bat hartzen zuten bitartean, antzezlan paregabeak ikusteko aukera izan zuten.



Jantzeslan polita egin zuten haurrek

Kafe-antzokira sartu ahal izateko, gonbidapena erakutsi behar zitzairen sarreran zeuden bi mutikoei. Kafe-antzokian berri-iz, alde batetik bestera ibili ziren zerbitzariak ikusle guztiei gaitetarik edota edariak banatzen. Haur batzuek antzezlan egiten zuten bitartean, beste batzuek zerbitzatu egiten zuten, eta azkenean, guztiak izan ziren aktore nahiz zerbitzari. Txikienak, pailasoz jantzi ziren eta dantza bat egin zuten. Beste talde batek, *Tricycle*-ren bi saio egin zituen, eta mutiko talde batek berri-iz, *play back* abestu zuen. Neskatuek dantzatu egin zuten, eta magoak zein txiste kontalariak euren saioak egin zituzten.

Hurbildu zen jendea oso gustora egon zela esan digute irakasleek, eta kafe-antzokia prestatzeko hartutako lanak merezi izan zuela.

ESKOLAKO GIMNASIOA ERRE EGIN ZEN

Konponketa lanak lehenbailehen amaitzea nahi dute

Ostiral meheko egunean zehar antzerkiak, jolasak eta barreak entzun ziren arren, gauean ez zen giro izan eskolan. Dirudienez, herogailuaren termostatoaren akats baten ondorioz, herogailuaren ondoan zeuden koltxonetek su hartu zuten. Gimnasio-ko lehioak eta ateak ondo itxita zeudenez, ez zen sugarik izan, baina gela

osoa erreta eta gauza ugari urtuta utzi zituen bertako temperatura altuak.

Eskolako haurrek kirola eta beste ekintza batzuk egiten dituzte gimnasioan eta herriko emakume talde batek berri-iz, gimnasia egiten du. Orain, kirola egiteko gelarik gabe daude, eta konponketa lanak lehenbailehen amaitzea nahi dute.



AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA


IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

ZABALA SAGARDOTEGIA

ADUNA (GIPUZKOA)
☎ 69 07 74



- Egunero iluntzean zabalik igandeak barne
- Igande eguerditan enkarguz
- Maiatzarte zabalik

BENITO

HARATEGIA URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Anna Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

ARGAZKI ERAKUSKETA AMAITZEAR

1911koa da argazkirik zaharrena

Herriko historiaren atal garrantzitsua jaso du La Salle-Berrozpek, ikastetxearen 50. urtebetetzea dela eta, Kultur Etxean aurkeztu eta amaitzear dagoen argazki erakusketari esker. Etzi emango zaio erakusketari amaiera.

668 argazki daude guztira erakusgai, 1911-1995 bitartekoak. Erakusketa gaika dago sailkatuta: ikastetxea, irakasleak, ikasleak, irteerak, kirolak, Gabonak eta abar. Argazkitan herritar eta jende ezagun ugari agertzen da, eta horrek herritar askoren ikusmina eragin du.

Argazkirik zaharrena 1911koa da, gaurko eskola apaiztegi zen garaikoa. Eskolako artxiiboaz gain, berrogeita hamar herritar inguruk utzi dizkiete antolatzaileei argazkiak, eta beren esanetan, eskaerei harrera ona egin dieten arren, oso lan neketsua izan da, argazkiak jaso, kopiak egin eta berehala itzultzea.

Argazki gehientsuenak zuri-beltzak dira, eta azpian, azalpen motz bat daukate, garaia eta gertaera zehaztuz. Herritarrek gainera, argazki historiko hauen kopiak egiteko aukera ezin hobea daukate, erakusgelan bertan eskatuz.



Azoka zaharreko arkupeak

La Salleko anaiak 1933ko urriaren 17an etorri ziren Aierdi etxera. Handik sei egunetara herriz, Azoka zaharrean zeuden geletan eman zieten lehenengo eskola saioei hasiera.

HEZKIZUN: LANGILEEN ETENGABEKO HEZKUNTZA Hirurogei enpresa inguruk hartu dute orain arte parte

La Salle-Berrozpe fundazioak abenduan sortu zuen Hezkizun S.L. enpresa. Inguruko lantegiei etengabeko hezkuntza eta erreziklaia profesiona eskaintzea du helburu, eskakizun teknologiko berriei erantzuna emanaz. Orain arte inguruko hirurogei enpresak gutxi gorabehera hartu dute arlo ezberdinetako ikastaroetan parte.

Orain arte ikastetxeak hainbat ikastaro eskaintza egiteko zailtasunak izan ditu, horregatik egituraz aldatu eta sortu dute enpresa. Enpresa txikiak eta erdi mailakoak dira ikastaroetan parte hartzen ari direnak. Inguruko lantegietan beharra handia dela ziurtatu digu Santiago Almandozek, enpresa arduradunak: "Askok erreziklaia behar-beharrezko dute, teknologiari dagokionez, ez baitaute normalean oso aurreratuta." ORAIN S.A eta CENIA etxeak dira adibidez, ikastaro bereziak jaso dituzten inguruetako bi enpresa.

Europatik

Europar, Frantziar nahiz Alemaniar, teknologia berriak ezagutu dituzte, eta bertako ideia ugari ekarri dituzte gure artera. "Orain arte ikastetxeak berak egiten zizkien lantegie eskaintzak -azaldu digu Santiagok- baina gaur egun, lantegiak dira eskakizunak egiten dizkigutenak, horregatik puntako teknologia ezagutu beharrean gaude".



Santiago Almandoz

Eskaini dituzten ikastaroen artean lehenengo eta behin informatika arlokoak nabarmendu dira, baina horiezaz gain, mekanika arloan, soldaketa eta galdaragintzan dago gaur egun beharrik handiena.

Dena den, orain arteko ezagupenak, ziur aski, arin geratuko dira zaharkituta, horregatik Hezkizunek egitasmo berriak dauzka, eta irailerako oso ikastaro berezia eta berria eskaitzeko asmoa dauka, domotika arlokoa hain zuzen ere. Domotika edo "eraikuntza adimentsua" esaten zaio teknologia berriari. Sistema berri honek etxe bateko berogailu, alarma, telebista, argia eta beste sistema elektriko batzuk zentralizatu eta elektronikoki kontrolatzen ditu. Gure artean ia sistema ezezaguna baldin bada ere, aurki gure artean izango dugula ziurtatu digu Santiagok.

KULTURA KONTSEILUAREN BILERA

Ondarea gordetzeko aurrekontu berria

Kultura batzordekideak eta zazpi kultur taldeko ordezkariak elkartu ziren kultur kontseiluan. Batzordeburuak, Garbiñe Egibarrek, oro har Udalaren egitasmoak eman zituen ezagutzera. Taldeen aurtengo egitarauak jasoko dituzten dirulaguntzetarako irizpideak izan zituzten, batez ere, bileran hizpide.

Udalak aurkeztutako egitasmoei dagokienez, gaur egun eskaintzen dituen ekintza eta zerbitzuez gain, herriko ondarea herritzeko lan batzuen berri eman zuen: Iñaki Olazabal eskulturaren herrikuntza, elizako armariarena, eta Laborde lantegia zen eta egun Euskaldunon Egunkaria dagoen pabiloietako batean dagoen Montes Iturrioz eskultorearen erliebea eraberritzeko lanak. Dena den lan hauek aurrera eramateko, Udalak beste erakunde batzuen dirulaguntza jasotzea espero du.

Oro har, taldeek antolatutako ekintzei zuzendutako dirulaguntza kopurua ez da handituko. Ondarea gordetzeko lanei bideratutako dirulaguntza berriak aurrakusi dira, eta Basteroko kultur gunearen aurreproiektua egiteko dirua aurrakusita dago.

Taldeak eta dirulaguntzak

Hirugarren urtea da Kultura batzordeak taldeen ihar-duerari zuzendutako dirulaguntzak erabakitzeke irizpideak aldatzen dituenen. Aurten aisia eta kultura taldeak bereiztu ditu, eta azken hauekiko ezarritako irizpideen artean honako hauek nabarmentzen dira diru gehiago edo gutxiago emateko: ekintza batek herriko kultur progra-



Kultura kontseilua

mazio osoan zein leku betetzen duen: antolatzen duen taldeak egindako giza ahalegina, hala nola ekonomikoan; herriko taldeen artean koordinaziorik egon den ala ez; emakumearen partehartzea; euskararen erabilera.

Talde batzuek irizpide hauen zergatiak galdetu zuten. Kultura batzordeak, irizpideak subjektiboak izan arren, azkenean, diru banaketa puntuazio objektiboren baten arabera, egin beharra dagoela uste du. Bestalde, talde batzuek zalantzan jarritako beste irizpide bat honako hau izan zen: gaur egun Udalak taldeek aurkeztutako aurrekontuaren %70a ematen du. Batzuek, %100 ematea eskatzen zuten. Kultura batzordekideen esanetan ordea, taldeek berezko dinamika izan dezaten, beren diru iturri edo baliabideak ere izan behar dituzte, aurrekontu osoa Udalaren bizkar erori gabe.

TALDEEN EGUNA

38 talderi egin dio Otitak deia

Oraindik data zehaztuta ez badago ere, ziur aski, herriko Taldeen Eguna apirilean izango da. Asteburu batean herriko kultur, atsedean, musika eta bestelako taldeak herriko protagonista izatea du ekimenak helburu. Taldeen Egunean talde eta elkarteek zer egiten duten eta zer egiteko gai diren erakusteko asmoa daukate herritarrei.

Otitak deia kultur elkarteak herriko talde guztiei egin die deia. Ekimenak badu arrazoirik: orain dela urte batzuk herriko dinamika bizilagoa zela uste dute, baina azkenengo urteotan asko moteldu delakoan daude. Hori dela eta, hiru helburu nagusi dituzte: taldeak zuzpertz, eta kalera atera; herria bizitu eta girotu; eta andoaindarrei herrian 38 talde badirela eta bertan herritar asko biltzen direla erakutsi.

Kultur dinamikaren moteltzeak bi arrazoi ditu Otitakoen ustez: batetik, udal dirulaguntzak murriztu izana; bestetik, taldeak motel samar egotea. Horrezaz

gain, Udalak azken urtean taldeekiko adierazi duen axolagabekeria ere salatu nahi izan digute.

Udalari proposamena

Asteburuko ekitaldian herriari esparru ezberdineko ikuskizunak eta ekintzak eskaintzeko gai izango direla uste dute, herrian musika taldeak, dantza taldeak, antzerkia, haur eta gazte txoen taldeak eta bestelako elkarte ugari baitaute.

Udalari aurki egingo diote Taldeen Eguna antolatzeko behar duten dirulaguntza proposamena. Eskaintza ona delakoan daude, eta Udalak ekimena begi onez hartzea espero dute.

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA Epaimahai berria

Aurtengo VIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaimahai berria izango du: ohikoa denez, presidente eta idazkaria, alkatea eta Udaleko Euskara Zerbitziburua izango dira: Jose Antonio Pérez Gabarain eta Patxi Baztarrrika, hain zuzen ere. Hautespedea izango duten bokal berriak herriz, honako hauek izango dira: Miren Azkarate euskaltzaina eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreordea, Allande Boutain kazetaria, Andu Lertxundi idazlea, Koldo Ordozgoiti kazetaria eta Iñaki Zabaleta EHUko Informazio Zientzia fakultateko irakaslea.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EN ASMOAK

Ondarreta-Leitzaran ikastetxearen egoeraz kezkatuta

Euskal Herri eta herri mailako ekintza ugari ari da Euskal Herrian Euskaraz taldea prestatzen. Urte t'erdi bete du taldeak. Partaideek adierazi digutenez, taldea sendotzen ari da, eta egitasmo eta erronka berriei aurre egiteko asmoa daukate. Herrian proposamenak egitea eta euskararen aurkako ekintzak salatzea du taldeak helburu.

Eusko Jaurlaritzak zehaztutako Eskola Mapa herriak herrian izango duen eragina aztertu du taldeak: *"Euskal irakaskuntzaren aldeko apostua ez da inondik inora Eskola Mapan agertzen; - horixe da beren hausnarketa- ez dira bizkuntz ereduak ukitzen, birurak egokiak izango balira bezala".* Herriko egoerari dagokionez, zera zehaztu dute: *"Tamalgarria bada ere, Ondarreta-Leitzaran ikastetxeak oraindik ere, eta nabiz eta ikaste kopurua txikia izan, A eredu eskaintzen jarraitzen du OHOKo 6. mailatik aurrera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta batxilergoa ere gazteleraz jarraituz".* Beren esanetan, herriko ikasleek ezin dute une honetan batxilergoa D ereduaren eskola publikoan egin.

Haur eta lehen hezkuntzan aldiz, B eta D ereduak eskaintzen dituzte. EHFen ustez, hala ere, gutxi dira oraindik haurrak D ereduaren matrikulatzen dituzten gurasoak. Hori dela eta

gurasoei zuzendutako kanpaina egin dute, honako lemapean: "A ereduarekin haur analfabetoak izango ditugu". EHFek A ereduaren desagertzea aldarrikatzen du, eta B ereduak D eredurantz jo behar duela dio.

Presoen hizkuntz eskubideak

Euskal Herri mailako bi kanpainetara ere eutsiko diete andoaindarrek: lehenengo eta behin, hurrengo udal

batzaraldian preso guztien hizkuntz eskakizunak bete daitezkeen moztioa aurkeztuko du. Horrezaz gain, Artzain Onaren katedralean Senideak deituta egiten ari diren gose greban parte hartzeko asmoa dauka erakundeak martxoaren 16tik 23a bitartean. Bestetik, aurki izango diren Osakidetza lehiaketa publikoan hizkuntz eskakizunik ez eskatu izana salatzen ari dira: "Euskaldun gaixoak, zuentzat ez dago osasun zerbitzurik" dioten leloa kaleratu dute.

Herrian halaber, txalaparta eta hitano ikastaroa antolatuta zuen taldeak orain gutxi, eta jendea ugari eta gus-tora parte hartzen ari dela adierazi digute.



HILOBIAK AGERIAN

Larramendi ikastolako guraso eta irakasleak haserre samar daude kanposantu zaharreko lanak direla eta. Kanposantu zaharra desegiteko asmoa dauka Udalak, eta horregatik ari dira hilobiak ateratzen.

Lanak iraun bitartean hilobiak agerian daude ordea, eta Larramendi ikastolako aurre-eskolako patio eta geletatik bista-bistan. Irakasle eta gurasoek haserre samar, udaletxera jo dute irtenbideren baten bila, baina bertan, oraingoz eta lanak iraun bitartean, ohitzea beste erremediorik ez dutela erantzun diete.

IXIAR UGALDE Martxoak 8ko kartel lehiaketako irabazle

Sorabillako Erramus-Enea baserriko Ixiar Ugalde izan da, Udalak Emakumearen Nazioarteko Egunerako kartela egiteko antolatutako lehiaketako irabazle. Ixiar arkitektura ikasketak egiten ari da, eta bere esanetan, kartelgintzak arkitekturarekin zerikusi handia dauka, alderdi estetikoaz gain, alderdi funtzionala landu behar baita batean nahiz bestean.

Kartela egiterakoan Udalak egun bat horretarako antolatutako hitzaldiekin harremanen izango zuen irudia bilatzen saiatu zen, eta azkenean, buztinez igurtzitako emakumezko gorputz soin bat modelotzat hartuz, osatzea bururatu zitzaion.



ESKULANAK PUNTUZ PUNTU

Puntu - Kruzean
espezializatutako denda

¥ Hariak ¥ Ehun
¥ Grafikak ¥ Kit-a
¥ Petit-point
¥ Gantxiloa

Zumalakarregi, 7
TOLOSA
☎ 65 28 81

HAMABI ETXEBIZITZA BERRI DATORREN URTERAKO

Apirilean eman beharko dute izena interesatuek

Asteasun eraikiko diren etxebizitza berriei buruz herritarrak informatzeko bilera bat egin zuten Kultur Etxean. Udaletxe atzeko zelaian, babes ofizialeko hamabi etxebizitza aurten hasiko direla egiten azaldu zuten udal ordezkariak eta arkitektoak. Hemendik hamairen bat urtetara, egitasmoak ondo zehaztu ondoren, Ibarrazpi baserriaren inguruan hasiko dira babes ofizialeko etxebizitza berriak egiten.



Herritar asko bildu ziren

Udalak babes ofizialeko hamabi etxebizitza egingo ditu datorren urterako. Bi eraikuntza egingo dituzte udaletxe atzean, eta bakoitzean, sei etxebizitza. 80 m²ko etxebizitzak izango dira eta hamar milioi pezeta balioko dute gutxi gorabehera. Babes ofizialeko etxebizitzak direnez, bete beharreko arauak badituzte: etxebizitzak, dirusarrera urriko jendearentzat, senide ugariako familientzat eta herriko bizilagunentzat izango dira, besteak beste. Arau guztiak zehaztu gabe badaude ere, beste etxebizitzarik ezingo dute eduki eskatzaileek, eta gainera, babes ofizialeko etxebizitza lortzen dutenek ezingo dute etxe hori saldu.

Interesatuek, arauak onartu ondoren, izena eman beharko dute udaletxean. Izena eman dutenen artean hamabi herritar aukeratuko dituzte. Horiek izango dira etxeen jabeak, eta kooperatibaren bat edo osatuko dute etxebizitzak egiteko. Etxeak egiteko lanak ordaintzeko, bakoitzak, bi milioi inguru jarri beharko du, eta beste gutzia Eusko Jaularitzak ordainduko du. Behin etxebizitzak amaitu ondoren, Eusko Jaularitzari ordaindu beharko zaizkio gelditzen diren milioiak eta kredituaren ordainketa egiteko erraztasunak emango zaizkie jabeek.

Aurrerago egingo dituzten etxebizitzak


Arau Subsidiarioen arabera, kalean, udaletxe atzeko zelaian eta Ibarrazpi inguruko lurretan egin daitezke

etxeak. Elizmendin ere eraiki daitezke gutxi batzuk, baina ez edozein lekutan. Hemen hamalau etxebizitza egin daitezke eta zortzi egiten hasi dira. Bestalde, Ibargaineko zelaian hogeita bost etxebizitza egiteko asmoa dago, eta kalean berriz, ez da herririk egingo: dauden etxe zaharrak herrituko dira. Ibarrazpin berriz, lursail pribatueta, familia bakarrekoko etxeak egiteko asmoa dute bertakoek. Udalaren lurretan aldez, bi edota hiru familia biziitzeko txalet modukoak egingo dituzte. 78 etxebizitza guztira, hemendik hamairen bat urtetara.

ODOL EMAILEAK

**Martxoaren hogeita bian,
19.00etatik 21.00etara**

Lau hilean behin ematen dute odola Kultur Etxean berrogei lagun inguruk. Odola eman ondoren eta indarrak berritzeko, oartekoa ematen dute. Izena eman duten herritarrak joan ohi dira odola ematera baina eman ez dutenak ere joan daitezke. Hurrengo odol bilketak, uztailearen hamaseiean eta abenduaren hamaseiean egingo dira, ordu berean.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

MENDI
AUTOESKOLA



Agustin Leitza, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

II. HERRI OLINPIADAK

Martxoaren 23an amaituko dira

Amabila euskara taldeko gazteek antolatu dituzte herri olinpiadak, eta datorren larunbatean amaituko dira. Lehenengo lau postuetan dauden taldeek dute irabazteko aukerarik handiena, elkarren arteko diferentzia oso txikia baita. Azken egunean egingo duten parodian erabakiko dute irabazlea. Iaz nahiz aurten ospatu diren herri olinpiadak, euskara bultzatzeko, koadrialen arteko harremanak sendotzeko eta neguko egun ilunak zertxobait arintzeko antolatu dituzte.

Bederatzi taldek hartu dute parte herri olinpiadetan, eta talde bakoitza, hamabost lagun inguruk osatu dute. Partaideak hamalau urtez gorakoak dira, eta gaztetxoena izan dira ekintza guztietan parte duten bakarrenetakoak. Mendi martxa, goitibera jeitxiera, mural margoketa eta hainbat ekintza gehiago egin dituzte azaroaren hemezortzian hasi eta egun horri jarraitu dioten bederatzi larunbatetan zehar.

Orain arteko sailkapenaren arabera, Bota Zak taldeak du irabazteko aukerarik handiena, 55 punturekin. Bere atzean, Zepelin eta Jun Da Bertan taldeak daude bakoitza 53 punturekin. Intzak Lasai-ek jarraitzen die 52 punturekin eta Pott Inda neska taldeak berriaz, 46 puntu ditu. Horien atzetik, Kili Kolo-koak datoz 38 punturekin eta Dudik Ez-ekoek, 13 dituzte. Azkenik, 78ko Belaunaldi-koak daude 28 punturekin, eta 9 puntu, AEK EI Askatu taldeak lortu ditu.



Pott indakoek irabazi zuten argazki lehiaketa

ZUZENEKO KONTRATAZIOEN AUZIA

Behin-behineko kontratua egingo zaie berriro

Gobernu Batzordeak behin-betiko kontratazioa zuten hiru langileen kontratua ezereztatzea erabaki du. Ongizate batzordeko gizarte laguntzaile, batzorde bereko administrari eta Euskara batzordeko dinamizatzaile lanak burutzen ari dira langileak. Udal idazkariak hiru langileei egin zitzaizen zuzeneko kontratazioei buruzko txostena egin zuen, eta bertan, kontratazioak legez kanpokoak zirela azaldu zuen. Ondorioz, behin-behineko kontratua egingo diete hiru langileei.

Behin-betiko kontratuen aurkako errekurtsioak egin zituzten HBBk eta udal langileek; deialdi publikoan egin gabeko kontratazioak zirela zioten. Bide batez, Klaudio Etxeberria HBBko zinegotziak eskatuta egin zuen idazkariak aipaturiko txostena, eta bertan, kontratazioak legez kanpokoak zirela argitu zen. Beraz, errekurtsioak aurrera jarrai ez dezan, azken erabakiaren berri emango dio Udalak Justizia Epaitegiari.

Barkamen eskaera

Ongizate eta Euskara batzordeetako betebeharrak ziurtatzeko, urtebeterako edota behar den denboraldirako kontratuak egingo zaizkie aipaturiko langileei; behin-behinekoak. Azkenik, barkamena eskatu nahi dieten Gobernu Batzordeko zinegotziek langileei, auziak sortu dituen arazoak direla eta.



Irrati maratonia

Loatzoko irratiak hogeita lau orduko irratsaioa egingo du; hilaren hamabostean eguerdian hasi, eta biharamunean, eguerdikiko ordubatean amaituko da. Irratsaio ugari entzuteko aukera izango da, eta horietako batzuk zuzenean egingo dituzte. Herriko eta inguruko hainbat lagunek hartuko du parte ekimenean, eta irratsaioak euskaraz nahiz gazteleraz izango dira.

W **HERRI TALDEAK**

Aseguruak ARGENTARIA

Argentaria, Seguritatearen Asegurua

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxa 69 37 34

ZIZURKIL

FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA

KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Albaniñeria

USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

ARMATROSTE GURUTZE GORRIAREN HITZARMENAREN AURKA

Alderdi politikoekin bildu dira

Aurtengo martxoan bi urte beteko ditu Gurutze Gorriak Billabonan. Udaletxearen beheko solairuan daukate egoitza, eta bere eginbeharra, gaixoak eta zaurituak osasun zentruetara eramatea da. Orain, hitzarmena berritu ala ez erabakiko du Udalak, eta Armatroste talde antimilitaristak idatzi bat bidali die alderdi politikoei akordioa ez berritzeko eskatuz. Ejertzitoari laguntza ukatu dion Udalak hitzarmena berritzea kontraesankorra dela diote.



Gurutze Gorriak ejertzitoarekin kolaboratzen duelako, eta beren esanetan, ordezkotzerbitzu soziala egitera uko egiten diotenak salatzen dituelako dago Armatroste, beste arrazoit batzuen artean, hitzarmen berri bat egitearen aurka. Gainera, Udalak ejertzitoarekin ez kolaboratzea eta ordezkotzerbitzu sozialari laguntza ez ematea erabaki zuela esan digute. "Gurutze Gorriak objektore nabiz intsumisioen aurkako errepresioarekin bat egiten duen bitartean, kontratua ez berritzea eskatzen dugu", dio Armatroste.

Iritzi ezberdinak

Bidean alderdiak, Gurutze Gorriak betetzen duen zerbitzua ontzat ematen du, eta hitzarmena egitearen alde daude, nahiz eta kontraesana onartu. EAJ-PNV alderdikoek, Armatroste-

koek aipaturiko kontraesana egia dela onartu arren, zerbitzu hori beteko duen beste alternatibarik ez dagoela diote. HB ordea, erabat ados dago Armatrosteekin eginiko idatziarekin, eta zerbitzu hori egiteko beste alternatiba posibleak ikertuko dituela gaineratu digute. EAKoek berriz, beste gai ba-

tzuekin lanpetuta ibili direla, eta oraingoz iritzirik ez dutela esan digute.

Talde antimilitarista, herriko gazteen sinadurak biltzen hasia da, eta sinadura horiekin batera, mozio bat aurkeztuko du, alderdiei egin dien proposamena udal batzarrean eztabaidatzeko.

Zabor bilketa tarifak

Iaz profesioarteko gutxieneko soldata edo gutxiago irabazi zutenek, ez dute zabor bilketa tarifarik ordaindu behar. Baldintza hori betetzen duten herritarrek, eskaera, martxoaren 31 baino lehen egin behar dute.

Berogailuetarako egurra enkantean

20 tona egur jarriko dira enkantean eta kilo bakoitzaren gutxieneko prezioa 8 pezetakoa izango da. Garraioa eta karga, eroslearen ardura izango dira. Interesatuiek beren eskaintza, izen-abizenak, helbidea eta N.A. zenbakia kartazal batean sartu eta martxoaren 27a baino lehen udaletxeko bulegoetan aurkeztu behar dute.

Kale Berria, 10
Tel. - Fax: 89 399 76
BILLABONA

EUROPEAN SCHOOL
HIZKUNTZ AKADEMIA

IKASTARO TRINKOAK
(17.04 — 28.06)

ESKOLARAKO LAGUNTZA
(Urte osoa)

MATRIKULA EPEA IREKITA

INGELES - FRANTZESA - INGELES - FRANTZESA - INGELES - FRANTZESA - INGELES - FRANTZESA - INGELES

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

UDAL INTSUMISOEN AUZIA

Mikel Arrastoa, alkate ohia, deklaratzera eraman zuten

Duela lau urteko Udaltzako HBk aurkezturiko mozioa onartu zuen, EAK egindako berrikuntzak barne. Bertan, edozein ejertzitori laguntza ukatzea onartu zuten, besteak beste. Hori dela eta, Mikel Arrastoa, HBko alkate ohia, deklaratzera eraman zuten aurreko hilean. Urtarrilean egin zen udaltzaren berriz, EUDIMAn, Euskal Udaltzaren Mankomunitatean, sartzea erabaki zuen, eta egun alkatea den Juanjo Aranburu jeltzaleak, Udaltzako hartutako erabakiarekin aurrera jarraituko du, "horrek eragin ditzakeen ondorioak onartuz".

Joan den hilean Mikel Arrastoa, alkate ohia, Donostiako Justizia Jauregiara deklaratzera eraman zuten ertzainek. Aitormena gaztelertz ez zuten egin nahi izan, eta itzultzailerik ez zegoenez, ez zuten deklaratu. Deklaratzera joateko beste egun baterako deia egin zioten baina ez zen joan eta bere kabuz inoiz ez dela joango esan digu Arrastoa. Mikel Arrastoiari, Udaltzako ejertzitoarekiko dituen betebeharrak ez betetzeagatik, isuna edota beste zigorren bat jarriko diote. Juanjo Aranburu egungo alkateak esan digunez, Udaltzako beregain hartuko ditu isun horiek.

Egungo alkatea inhabilita dezakete

EUDIMAn sartzeko proposamena HBk egin zuen, eta herritarrek soldadutza ez egiteko eskubidea babesteko osatu da Udaltzaren ezberdinekin osatutako mankomunitatea. Herri desmilitarizatu baten alde daude EUDIMAn biltzen diren udalerriak, eta beraz, ez daude ejertzitoari laguntzeko prest. "Udalerri asko daude egoera berean, eta zerbait egin beharko dute auzia konpontzeko", esan digu Juanjo Aranburuk. Deklaratzera joateko deitutakoan, joan egingo dela gaineratu digu, hala nola, erabakiak eragin ditzakeen ondorioak onartuko dituela.

Aipatzeko da, EAJ alderdiak ez zuela duela lau urteko mozioa onartu, derrigorrezko soldadutzaren aurka batzuek ere, ez baitzuen intsumisioa onartzen. Bestalde, EA abstenitu egin zen EUDIMAn sartu ala ez erabaki zenean. HBk eta PSE-EEK aldiz, jarrera bera eduki dute lau urtetan zehar: bata intsumisioaren alde; bestea berriz, aurka.

III. TXAPELA EGUNA

Gartzako Antonio izan da aurtengo omendua

Martxoaren bederatzian, III. Txapela eguna ospatu zen Zizurkil goian. Aurten, Gartzako Antoniori jarri diote txapela eta goizetik gaueraino herritar ugari ibili zen txapela buruan zuela. Zizurkil Zutik taldeak antolatzen du urteroko festa hau, eta urtetik urtera giroa hobea dela esan digute.

Goizean, ahari jokoak, trontza eta antzeko herri kirolekin hartu zuten parte hainbat herritarrek. Zizurkilgo trikitilari eta bertsolari gazteak ere ibili ziren festan. Arratsaldean, mus txapelketa jokatu zuten eta ondoren, bertsolariekin aritu ziren txikiteoan. Azkenik, afari paregabea egin zuten Iriarte Etxean eta bertan eman zioten txapela Antoniori.

Kale giroan ibiltzen dena omentzen dute

Gartzako Antonioak hirurogeita zazpi urte ditu, eta musean jokatzeko du gustoko. "Txapeladuna, berdin du emakumea, gaztea edota zaharra izatea: kale giroan ibili eta herrian ezaguna izan behar du" esan digute antolatzaileek.



Aurtengo omendua, Gartzako Antonio

P.M. Otaño ikastetxearen oharra

Aiurrik aurreko zenbakian, "Bertso ikastaroa" izenburupean idatzitako artikuluan, Pedro Maria Otaño ikastetxean bertsolaritza lantzeari utzi ziotela genion, eta gainera, bertso eskola sortzearen arrazoia hori zela. Okerrak zuzendu nahian eta ikastetxearen esanetan, astean behin lantzen dute bertsolaritza klasean; lehenengo mailan hasi eta zortzigarren mailara bitartean. Bertso eskola sortzearen arrazoia, ikasle bertsozaleei, bertsoak lantzeko ordu eta aukera gehiago ematea dela adierazi digute.

Aduna

LIXONÉ, BERTAKO XABOIA

Euskal Herriko xaboi ekoizle bakarrak

Jose Manuel Beloki andoaindarrari orain dela zortzi urte bururatu zitzaion xaboiak ekoiztea. Oso gogorrak izan ziren lehenengo urteak; gaur egun ordea, pozik daude orain arte egindako bidearekin, eta etorkizun ona aurrikusten dute familiako enpresa txikiarentzat. Lixoné marka xaboi, esku krema, toniko eta beste hainbat eta hainbat gorputz garbiketarako eta kosmetika gaitan aurki daiteke. Espainia osoan ez dago, Lixonek eskaintzen duena baino aukera zabalagorik.

Xaboi mota bat baino gehiago plazaratzeko garaian, Lixoné aitzindari izan da: orain dela sei urte adibidez, gaur egun beste etxe indartsuagoek komertzializatzen duten olozko gorputz xaboiak kaleratu zuen. J.M. Beloki ordea, ez dute bere xaboiak izan dezaketen ospea edo zabalkundea horrenbeste kezkatzen; helburu garbia dauka, aitzitik: *"Edozein tokitara joanda ere, Lixoné markako xaboiak onak direlako ezagutzen"*.

Beren ekoizpena xaboi bereziak eta zehatzak egitera bideratuta dago: beste batzuek, artean plazaratu gabeko gaiak aurkezten dituzte, bide berriak jorratuz. Gaur egun, esate baterako, belardendetarako eta botiketarako gaiak, hala nola kosmetikoak, ari dira bereziki lantzen. *"Hoteletarako xaboiak egiteko, edota era horretako ekoizpen handiak egiteko eskaintzak egin dizkigute -azaldu digu Belokik-, baina merkatu hori ez zaigu interesatzen"*.

"Batere publizitaterik egin gabe, gure xaboiak kanpoan ezagutu dituzte"

Poliki-poliki, batere publizitaterik egin gabe, Lixoné produktua gure mugaz kanpo ezagutzera ere iritsi dira, eta gaur egun Belokita-


rrak euren xaboiak Frantziara, Zelanda Berrira, Australiara eta beste gune batzuetara zabaltzeko harremanetan daude. Ez dute, hala ere, multinazional bihurtzeko asmorik, ez da hori beren filosofia: *"Lantokia ez da honez gero tamainaz handituko, izatekotan ekoizpena handituko dugu"*. Lixone markak gazteengan dauzka begiak eta itxaropena jarrita: kalitatezko gai onak begi onez hartuko dituztela pentsatzen du Belokik.

Gezurrezko publizitatea

J.M. Belokik konfidantza handia dauka eskaitzen dituen xaboiengan. *"besteak beste, beste etxeek xaboiak nola egiten dituzten badakitelako -azaldu digu-, denok ezagutzen ditugun etxe handi horiek gezurrezko publizitatea egiten dute askotan: edozein xaboiaren %5eko koko koipea sartzen dutela esaten dute, adibidez, eta sekulako publizitatea egiten dute; eta gu orain dela urte mordera ari gara gure xaboiaren %25-60 koko koipea sartzen"*. Etxe handi horiek normalean ez dira ekoizleak, banatzaile hutsak dira, produktua bera baino gehiago, publizitatea lantzen dute.

Hasieran dendaz denda hasi ziren beren xaboiak eskaintzen. Gaur egun Euskal Herriko etxe handientzat lan egitea lortu dute. Urtero hiruzpalau produktu berri plazaratu izan dituzte orain arte, eta aurki Lixoné produktu berriak izango dira gure artean.

Xaboi ez da gauza berria; gure arbasoek ere egiten zuten soina nahiz bestelako gauzak garbitzeko. Lixibaz eta koipez dago funtsean eginda. Nolako koipea; halako xaboi, hori da gakoa.



Lan asko eskuz egiten dituzte

KRISI INDUSTRIALAREN GORA-BEHERAK

Ramon Irazu: "Eskualdearen etorkizuna industria garapenaren baitan dago"

Gure herrietako egoera ekonomikoari buruz argibideren batzuen bila jo dugu Ramon Irazu Garmendiarengana. Asteasuarra da jaiotzez, Andoainen bizi da gaur egun, eta ELA sindikatuko eskualdeko idazkaria da. Oro har, eskualdea eta Euskal Herria osoa jasaten ari den egoeraz argi eta gordin hitz egin digu, baita erakunde publikoek daukaten erantzukizunaz eta betebeharretaz ere. Sindikatuak, bestalde, ez dira azkenengo hamarkada hauetan historiako garairik oparoenak bizitzen ari, hala ere, langileen interesen defentsan ezinbestekoak direla uste du Ramon Irazuk.



Ramon Irazu ELAko kidea da

Euskal Herriko politika ekonomikoari dagokionez, zera kontatu digu Irazuk: Eusko Jaurlaritzak apenas dauka eskumenik politika ekonomiko egokia zuzentzeko. *"eta dautzkanak ez ditu erabiltzen-zehaztu digu- INEM, Enplegu Institutua, adibidez, ezinbesteko tresna da, baita gure agintariak Madrilen eskumena ematen ez dietela esatera mugatzen dira"*. Bestalde, inon baino iruzur fiskal handiago dago gure artean, eta Irazuren esanetan, Eusko Jaurlaritzak ezer gutxi egiten du arazoari irtenbideren bat emateko.

Sindikatuak

"Sindikatuak ez daude lanpostuak sortzeko -adierazi digu ELAko idazkariak lehenengo eta behin- langileen lan baldintzak defendatzen eta hobetzen eta behar den tokian presioa egiten saiatzen gara gu". Europak ongizate gizartea eraikitzeko historikoki izan duen tradizioi muzin egin diote agintariek, eta iparramerikar ereduari jarraituz, mende hasierako liberalismo gordinenean murgilduta gaudela uste du Irazuk. Egoera horretan sindikatuen zeregina asko zailtzen da: batetik, langabezia handiak -Espainiakoa Europako altuena izanik, %20-25a- eta bestetik, behin-behineko enplegu tasa altuak -%35a- erabat eragozten dute sindikatuen lana, besteak beste, soldatapeko langileak gero eta gutxiago direlako, eta bestetik, lanean dauden asko, horren egoera kaskarretan egonda, ez dire-

Gure herrien iharduera ekonomikoaren %75a industria da, batez besteko Gipuzkoakoa baino altuagoa. 1991-1993 urteetako krisi industrialak bete-betean hartu zuen eskualdea, eta langabezia portzentaiaren igoera handia izan du ondorioz nabariena.

Orain dela urte batzuetako lantegi handiek, eskualdeko enpresa txikiak mantentzeko eta zuzpertzeko zeukaten eragina galdu dute: Laborde, Sacem, Oriako paperfabrika, Sapa eta abar. Lantegi handien berregituraketak, lantegi txiki eta ertainen sorrera eragin zuen orain dela urte batzuk; hau da, enpresak espezializatu egin ziren, lantegi handien hornitzaile bihurtuz. Horrek aldi berean, enpresa txikien arteko berebiziko kompetentzia eragin zuen. Euskal Herria osoak bizi izan duen prozesuaren parekoa izan da deskribatutakoa.

Inguru honek ordea, izan du bestelako krisi bereziagorik: papergintza arloko krisia, hain zuzen ere. Tolosatik hasi eta Andoainera bitartean paper lantegi garantzitsuak izan dira, eta aldi berean makina-erraminta lantegi txiki askoren sorrera eragin zuten garai batean. Europako mugak ireki zirenez geroztik, ordea, paper merkea eta ona sartzen hasi zen, eta paper lantegiek ezin izan diote kompetentziari aurre egin, besteak beste, behar-beharrezkoa zuten espezializazioa burutu ez dutelako. Ramonen ustez, inguruan gelditzen diren hiruzpalau paperfabrikek ez dute aurrekoek baino etorkizun hobea izango, eta Gipuzkoa osoan hiruzpalau lan-

tegi baino ez dira geratuko. Bestalde, makina-erraminta lantegi askok, beste produktu bat eta beste bezero batzuk bilatu behar izan dituzte, papergintzaren krisiaren ondorioz.

Baserria babesleku

Eskualdeak izan du eta oraindik badu ere langileak krisi industrialetik babestu dituen baliabidea: baserria, alegia. Lantegietara joandako baserri-tar asko itzuli dira jaiotetxera, eta nola edo hala, moldatu dira, langabezia egon arren, aurrera egiteko. Hala ere, industriaren zuzpertzean dago, Irazuren ustez, eskualdearen etorkizuna.

Aldi bateko gorakadaren ondoren, beherakada berriro


Orain dela urtebete inguru hasi ziren adituak ekonomia berpizten hasia zela esaten: gaur egun aditu berberak, berriro ere geraldia dagoela eta beherantz egiten ari garela diote. *"Nork eragiten ditu, bada, gorakadak, eta beherakadak?"*, galdetu digu guk. Euskal Herriari dagokionez, Estatuak zehazten duen politika ekonomikoaren baitan dagoela esan digu ELAko kideak. Azkenengo urteetan, gainera, politika ekonomikoak inbertsio industrialak baino gehiago, espekulazio finantziarioa eragin omen du: Espainian, dirua inon baino garestiago, eta presio fiskala inon baino txikiagoa: *"Negozio azkarrak egiteko dirudunen paradisu"*.

Iako sindikatuetera bildu eta hainbat eta hainbat aldarrikapen egitera auzartzen.

“Sindikatu abertzale eta ez abertzaleen arteko haustura erabatekoa da”

Euskal Herrian badugu, gainera, bestelako zailtasunik: sindikatuak langileen interesak defendatzeko garran, ez dira bat etortzen: “*Matia politikoan autonomiak onartu dira; baina ez ordea lan munduan*”, dio Irazuk.

Ramon Irazuren ustez, erakunde txikiek nahiz handiek guztiek badute nolabaiteko erantzukizuna politika ekonomikoa zehazterakoan. Udal gehienak zerbitzu asko eta asko pribatizatzeke duten joeraren aurkakoa da, esate baterako. Publikoaren eta ezkerreko ideien euskarri izan diren ideologiak gainbeheran daude, nonbait. Gazteen ideia eta hitz askok ika-



Billabonako paper fabrika

ratu egiten dutela aitortu digu: “*Agintari eskuindarrak baino atzerakoia goak iruditzen zaizkit enpresa zientzia fakultateko ikasle asko, adibidez, sindikatuak buruz hitz egiten dutenean*”. Hala ere, euskaldun jende askorengan daukan itxaropen apurra ere ez digu ezkutatu.

Gure gizartea gainbeheran dagoela uste du, ia sei urtez ELAko eskualdeko idazkaria den Irazuk: “*Enpleguaren arazoari intzibideren bat bilatzea izan beharke litzateke politikarion lehenengo beharria -dio-, eta ez miraririk itxaronez; politika egokia eginez, batziki*”. ■

URTEA 1991		ADUNA	ANDOAIN	ASTEASU	BILLABONA	LARRAUL	ZIZURKIL
BIZTANLERIA	GUZTIRA	296	15.265	1.205	5.630	143	2.711
	≤ 19 urte	70	4.433	311	1.522	26	814
	20 - 64 urte	168	9.377	748	3.287	87	1.626
	≥ 65 urte	58	1.455	146	551	30	271
MIGRAZIO MUGIMENDUA	Inmigrazioa	—	41	—	16	—	4
	Emigrazioa	—	131	—	26	—	4
16 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA, IHARDUERAREN ARABERA	GUZTIRA	237	12.061	975	4.199	122	2.096
	AKTIBOAK	103	6.362	544	2.241	70	1.128
	LANDUNAK	91	5.047	463	1.882	68	930
	Nekazaritza	9	71	70	49	30	62
	Industria	36	2.561	144	924	14	399
	Eraikuntza	7	463	49	170	10	96
	Zerbitzuak	39	1.952	200	739	14	373
	LANGABEAK	12	1.315	81	359	2	198
	Lan Egindakoak	11	671	33	207	2	112
	1. enplegu bila	1	644	48	152	—	86
EZAKTIBOAK	134	5.699	431	1.958	52	968	

ITURRIA: Euskal Estatistika-Erakundea (EUSTAT)

Billabona

OLGA BIDAURRETAREKIN SOLASEAN

Informatikoa ofizioz; modeloa afizioz

Hogeita zazpi urte dauzka. Informatikoa da lanbidez, baina hamasei urterekin ezagutu zituen moda pasarelak, eta geroztik etengabe egin du lan modelo gisa eta publizitate munduan. Modelo izateak bizitza arruntean gauza eta lotsa asko gainditzeko balio izan diola aitortu digu Olgak. Euskaldunok, gainera, aurritzi eta tabu handiak dauzkagu, bere esanetan, modarekin eta irudiarekin zerikusirik duten lanbide eta pertsonakiko. Urratsez urrats Olgak telebistan lan egiteko aukera ere izan du: Goenkale saioan ikusiko dugu aurki.



Interpretazio lana du gaur egun gogokoen

Aiurri: Nola hasi zinen modelo lanetan?

O.B: Hamasei urterekin hasi nintzen. Nere bizilagunak mertzeria bat zeukan, eta publizitatean egiteko modelook behar zituen. Tolosan egin nuen lehenengo saioa. Ondoren Donostian hasi nintzen barremantetan. Poliki-poliki mundu horretan ezagun samarra bihurtzen hasi nintzen, eta geroztik ez zait inoiz lanik falta izan. Beste hau inori kontatu ez diodan arren, aspaldi "Gipuzkoako maja" izendatu nindutela ere esango dizuet. Egia esan, ez dit ezertarako balio izan, eta esperientzia ez zitzaidan batere gustatu.

A: Bi lanak batera egiteko ez al duzu arazorik izan?

O.B: Beti oso argi izan dut gauza bat enpresako lana dela; bori da nire ofizioa. Modelo izatea afizioa izan zen lehenengo, eta gaur egun, lan osagarria dela esan dezaket. Beti gustatu izan zait gauza berriak ikastea, eta horregatik sartu nintzen mundu horretan.

A: Ze modelo lan egin dituzu orain arte?

O.B: Lau urtez San Telmon egiten ziren desfileetan aritu nintzen. Desfile pribatuak ere egin izan ditut. Publizitate munduan egin dudak azken spota Osakidetza erretzaleei buruz egin duena izan da. Aurretik Ford-ekin, Kutxa Vital-ekin eta beste etxe batzuekin egin dut lan. Pijama eta kamisoi etxe baten katalogoa egin obi dut urtero. Eta telebista pixka bat ere ezagutu dut: garai batean "Funtzioa" saioan aritzen nintzen aurkezle laguntzaile lana egiten, eta "64" telesaiotan ere parte hartu izan dut.

A: Eta aurki telebistan ikusiko zaitugu berriro?

O.B: Bai. Goenkale saioan: Gregorioten abokatua izango naiz. Dena den, ez dakit noiz arte egongo naizen. Produktoreek ere ez dakite pertsonarekin zer egingo duten. Hasia naiz interpretaritza ikasketak egiten, eta aukera polita da niretzat.

"Euskal Herrian modelo izateko ez dago egundoko itxura izan beharrik"

A: Ze ezaugarri izan behar dira modelo izateko?

O.B: Egia esan, Euskal Herrian maila ez da oso altua, eta egundoko itxura ere ez daukazu izan beharrik. Aurpegi atsegina, gorputz liraina... horiek dira ezaugarri nagusiak. Hiriburu bandietan maila oso bestelakoa da, eta zeresanik ez puntako modeloen artean.

A: Modeloek ba al dute adin mugarik?

O.B: Ni gazte hasi nintzen lanean, eta ia ez egin nuen lanik gebien publizitate munduan, batez ere. Argi dago hamasei urterekin gorputza hogeita zazpirekin baino tenteago dagoela. Publizitatean adinak ez du horrenbeste mugatzen.

A: Zure irudia jendaurrean ikusten duzunean, zer pentsatzen duzu?

O.B: Oso kritikoa naiz neure buruarekiko, beti bilatzen ditut akatsak. Hala ere, gainditu ditut garai bateko lotsak. Mundu bonetan basten zeranean, zerbait txarra egiten ari zaren irudipena izaten duzu batzuetan. Gizarteak tabu handiak dauzka lambide bonekiko; eta euskaldunok zeresanik ez. Nik aurriritzi horiek guztiak gainditzea lortu dut, eta horregatik sentitzen naiz nire buruarekin gustora. Gainera, horrek guztiak nire bizitza arrunterako ere balio izan dit. Hala ere, ez nuke kulerook eta sostena soinean bakarrik jantzita, publizitaterik egingo, adibidez. Nik badakit nere karrera noraino bel daitekeen. Eta jendearen kritikak ez jasateagatik bakarrik, ez dut uste horrelako gauzarik egitea, nire kasuan, merezi duenik.

“Nazka ematen dit batzuetan publizitatean emakumearen irudia nola erabiltzen duten”

A: Dena den, zer iruditzen zaizu publizitatean emakumearen irudiaz egiten den erabilera?

O.B: Nazka ematen dit askotan. Gainera, zu lanean ari zerala, serio egiten duzu lan, eta azkenean,



Ez zaio modeloak ematen duten itxura friboloa gustatzen



Ordenadoreak eta pasarelak tartekatuz

zutaz oso irudi friboloa geratzen da. Ni hori baino sakonagoa naiz, eta askotan amorrarazten dit horrek. Bestalde, askotan casting-elara joaten zarenean, bezeroek goitik behera begiratzen zaituzte, eta bitz erdi esaten ere ez dizute uzten.

A: Ezer esaten al dizu Martxoaren 8-ak?

O.B: Ez dut ezer berezirik egiten. Ni eguneroko lanean saiatzen naiz lana ongi eginez, emakumeak balio duena eta egin dezakeena agerian uzten. Bestalde, emakumeak gizarteak postu guztietan egon behariko luketela iruditzen zait. Baina nire planteamenduetan ez naiz oso erradikala.

“Nere itxurak, on baino gehiago, askotan kalte egin dit”

A: Itxura erakargarri batek, orokorrean, emakumeari zer egiten dio, on ala kalte?

O.B: Nire kasuan, enpresa munduan itxura polit batek omurak baino gehiago, eragozpenak ekarri ditzakit. Bezeroek, ez zaituzte gizonetzko bat bezain serio hartzen. Gorputz ederra duzulako, bururik ez duzula iruditzen zaite. Balio dudana besteek baino gehiago frogatu behar izatera behartu nau nire itxurak.

A: Zer lan egiten duzu informatika munduan?

O.B: Zerbitzu enpresa batean egiten dut lan, eta programak egiten ditut. Ikastaroak ere eman izan ditut. Mexikon sei hilabetez aritu nintzen Banco Mexicano-n lanean, eta Madrilen urtebetez aritu nintzen jarrarian ikastaroak ematen. Bertan modelo lanean barreramanak izaten saiatu nintzen, baina oso lampetuta egon nintzen, eta ezin izan nuen.

A: Zer asmo dituzu aurrerantzean?

O.B: Enpresako lana finkatu nabiko nuke, lehenengo eta bebin. Bestalde, publizitate mundua utzi gabe, interpretaritza lanean jarraitu eta aurrera egitea gustatuko litzaidake. Goenkalen daukadan aukera ongi aprobetxatu nahi dut. ■

IRATXO MUSIKA TALDEA



AHTren aurkako maketarako kanta bat grabatzen ari dira

Andoni Galindo gitarra, Josean Flóres bateria, Jon Villate abeslaria, Fede Acedo baxua eta Asier Etxeberria teklatura; horietan osatzen dute Iratxo taldea. Urte sasoi honetan udako berbena garairako kantak prestatzen ari dira. Aurki AHTren aurkako herriko taldeak aurkeztuko duen diskarako egindako Iratxoren kanta entzun ahal izango dugu. Neguan berbenak ez dira oso maiz izaten, hala ere, apirilaren 20ean Andoainen izango den Errealaren lagunartean egunean entzuteko aukera izango ditugu zuzenean.

Egia da gaur egun berbenetara ez dela jende asko inguratzen, baina oraindik ere Gipuzkoako herri askotan jotzeko aukera badaukateela esan digute, eta Nafarroan batez ere: "Nafarroako herri txikietan lan egiteko baldintzak normalean askoz ere kaskarragoak dira -esan digute-, baina giroa oso ona da". Nafarren artean herri herri jarraitzen dituzten neska-mutil koadrila asko dauzkate-lana ziurtatu digute.

Gustoko lekuan, aldaparik ez

Udan batean eta bestean jotzeko kantak garai honetan ari dira prestatzen: "Ofizioak horixe du txarra -azaldu digute- negu osoa igaro behar dugu lanean, dirurik irabazi gabe, udako prest egoteko". Hala ere, merezi duelakoan daude: "Ez dugu nahi adina irabazten, baina egiten duguna gustatzen zaigulako jarraitzen dugu, eta hori ez da gutxi".

"Rock and roll-ak ez du dirurik emanen"

Lau urtetan ia Gipuzkoa eta Nafarroa zeharkatuz, nahikoa ezagunak izatea lortu du Iratxok, hala ere, kostata egiten ari dira aurrera, eta kexu dira erakundeen aldetik dirulagutzarik ez dutelako: "Taldea osatu genuen, enpresa eran antolatuta ginen. Baina musikoak ez dituzte inon oso serio hartzen, eta ez digute batera erreztasunik ematen, ekipoa erosi behar eta baketxetara jotzen dugunean, adibidez". Beren ustez, sortu berriak diren beste enpresa asko bezela, erakundeetatik dirulaguntzak jaso behariko lituzkete. Bestalde, han



Ezagutzera emateko irudi erakargarria ezinbestekoa

Lau urte dira taldea osatu zenetik. Iragarki batzuen bitartez ezagutu zuten elkar. Aurretik guztiak aritu izan dira rock and roll talderen batean edo bestean gaztetxez gaztetxe jotzen. Taldean joan-etorri handiak izan dira, baina gaur egun, taldea sendotzen hasita dagoela ematen du, eta beren esanetan itzaropen guztiak eta diru mordoak daukate musika taldean jarrita.

Orain dela gutxi arte beste bi neskek ere osatzen zuten taldea, kantari gisa, baina dirua zela eta, murrizketak egin behar izan zituzten eta neskek kanpoan geratu ziren: "Oso musikari eta kantari onak ziren -zehaztu digute- baina gure kantetarako ez ziren oso egokiak". Rock and roll kanta gehienak, nonbait, mutilen ahotsetara hobeto egokitzen dira.

Orremendi Kirolak

AUKERA ZABALA KIROL ARTIKULUETAN

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

SOTO

elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g BILLABONA
☎ 69 11 73

eta hemen antzeko leloa entzuten ohitzen hasiak dira: *"Badakizue aurrekontuak murriztu dituzte, eta jaiak antolatzeke ez dago diru asko"*.

Kompetentzia izugarria

Kompetentzia handia da berbena taldeen artean, eta lanbide berean ari diren musikarien artean harremana ere ez dirudi behar bezain ona denik. Kompetentziak talde asko, besteak gutxieste eta kritikatzera eramanez ohi ditu. Gipuzkoa osoan, esan digutez, berbena talde asko dago, eta orain arte ohikoek baino ez zuten urtea joan urtea etorri leku berean jotzen. Talde berriak izugarritzko lanak izaten omen dituzte horregatik, aurkezteko. Horrek hasieratik ezagutzera emango zituen ordezkari bat izatera eta aurkezpen txartel erakargarri bat izatera behartu zituen. *"Esplotazio butsa da"*, esan digute etsita, baina nonbait, musika oso gogoko izan arren, lanbideak horixe eskatzen die.

"Lana eta parranda ezinbestean tartekatatu behar ditugu batzuetan"

Rock and roll talde bat osatzen dutenik ez dira esatera ausartzen, baina guztiak dira zaleak. Berbena giroak era guztietako kantak egitera eramaten baditu ere, *rock*-a jotzen dutenean sentitzen dira gustoen. Horregatik, gaur egun ospetsu diren



Rock and rolla dute batez ere gogoko

eta indarrean dauden taldeen euskarazko kanteak osatzen dute, batez ere, beren kanta bilduma.

Gazteak dira guztiak, inork ez du hogeita hamar urtetik gora, eta jakina, guztiak dute parranda gogoko. Hala ere, lana eta parranda ondo bereizten dituzte, *"batez ere, emanaldi baten ondoren, tresneria guztia bildu behar dutelako"*, esan digute. Hala ere, batzuetan hiru edo lau egunean jarraian jotzeko kontratatzen dituzte, eta orduan lana eta jai giroa tartekatatu ohi dituzte, *"beste erremediorik ez dugu izaten"*.

Denbora eta dirua

Zalantzarik gabe, diska bat grabatzea izango lukete gogoko, *"batina*

borretarako dirua eta denbora behar da", eta denboraz nahikoa estu ibiltzeaz gain, beren sosa guztiak ekipatu txukun bat izateko erosketan xahutu dute. Hala ere, egun honetan euren kanta propioa egiten ari dira, eta aparteko animoz ari dira lanean. Andoaingo Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldeak maketa bat kaleratuko du aurki herriko taldeen lanez osatuta, eta beraien ere partaide izango dira.

Apirilaren 20ean, bestalde, Andoainean zuzenean entzuteko aukera izango dute herritarrek. Beraien, gu bezala, egunkariaren bidez jakin zuten berria: *"Askotan gertatzen zaigu"*, esan digute baterre harritu gabe.



OPTIKO - OPTOMETRISTAK

EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA

Kalenagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17



TESTU LIBURUAK
(O.H.O. - U.B.B. - L.H. - I.)

ESKOLARAKO
OSAGARRIAK

JOKO
DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO
LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

IRAKURKETARAKO
LIBURUAK
ZURE HERRIAN

BILLABONA

Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51

ESTETIK

- Gorputzerako eta aurpegirako tratamenduak
- Gorputz drenaje linfatikoa

PRESOTERAPIA

Kale Nagusia 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69

A
M
A
I
A

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZARGO PLAZA, 2
☎ 59 01 62

ANDOAIN

ASTEASUKO UDALA. 1914



Eserita ezkerretik eskuinera: **Braulio Arozena** erretorea, **Jose Matilde Ugalde** alkatea, **Sebastian Uria** lehengorako alkateordea, **Jose Mari Ugartemendia** bigarren alkateordea, eta **Jose Luis Mujika** zinegotzia.

Zutik ezkerretik eskuinera: **Victoriano Sorondo** apaiz laguntzailea; **Juan Tapia** zinegotzia; **Jose Tapia** zinegotzia; **Pablo Otegi** zinegotzia; **Dario Esnaola** idazkaria; **Domingo Atutxa** aguazila; eta **Rosario Etxeberria** apaiz laguntzailea.

Argazkian agertzen ez diren **Jose Ignacio Sarasola** eta **Bartolome Sáez** ere urte haie-

tan udal zinegotziak ziren. Garai hartan apaizak ezinbestean ziren Udalaren partaide. Herriko haurren heziketa beren eskuetan zegoen.

Udal agirietan dioenez, igandetan, goizeko zortzi terdietan egiten zituzten udal batzaraldiak.

Auzoko alkateak: "**Bebaillea**": **Francisco Mujika**; **Upazan**: **Anbrosio Gabilondo**; "**Goiballea**": **Jose Antonio Gabilondo**; "**Errekaballea**": **Jose Domingo Garmendia**.

Informazio emailea: Jose Luis Larretxea, Ernio Bebeko artxibaria.



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea, DENAC Poligonoa, 203, Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 - ANDOAIN



BORDA
Gatetxea

A N D O A I N

Jose Ramon
— TABERNA —

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELE. 59 35 49

JOSE LUIS APERRIBAI

Zizurkilgo San Millan parrokiako apaiz laguntzailea



- **Nondik nora iritsi zara Zizurkilera?**

- Bergararra naiz berez, eta Zizurkilan bost urte erdi egin ditut. Aurretik hamabost urte egin nituen Lezoan. Aldaketa onerako izan da, bala ere, baxieran uste baino gehiago kostatu zitzaizdan obitzea. Nik beti esaten dut bebin Adunako zubia igaro, gero, gizakia beste dimentsio batean sartzen dela. Eskema guztiak aldatu beharra daude. Hemen gautzei beren neurria hartzen pixka bat ikasi dudala uste dut.

- **Herrian ezezik, beste lan batzuetan ere ari zara?**

- Bai, gizarte laguntzailea naiz, eta beti nabi izan dut alor horretan lan egin. Gaur egun Donostian Gizakia Helburua elkarrean aritzen naiz, eta baita Tolosaldeko Karitas-en ere. Erakundearen izaera politikoki aldatzen saiatzen ari gara: laguntza puntuak emateaz gain, behar dutenei bestelako irtenbide orokorragoak eman nahi dizkiegu.

- **Herriko dinamikan ere parte hartzen duzu?**

- Bai, baina oso munda txikia dela hartu behar da kontuan. Haurrak ere gutxi dira, eta baserriak asko lotzen du herriko dinamikan parte hartzeko. Zizurkilgoialde honetan asteburuetan egiten da batez ere bizitzia: goizez batzuek, gautzez besteek.

- **Nolakoa da Zizurkil? Eta zizurkildarrak?**

- Nik uste dut zizurkildarrek herriaren izaera eta tradizioari enstea lortu dutela. Badute nortasun propioa, eta barro daude gainera, autoestima handia daukate. Bestalde, herria ez da busti, eta kanpotarrak ere etorri dira. Inkesta batzuen arabera, zizurkildarrei herri baketsu, jator eta atsegina dutela inultzen zaie. Harremanetarako jende irekia da. Leku guztietan bezala, alderdi ezkorrak ere badaude: diferentzia politikokoak, herriko bizitzan partaidetza eskasa, norberkoikeria. Herritarrek, oro har, konformidadez bizi dira, baina konformidadeak batzuetan konformismoa ere ekarri obi du berarekin, eta hori baztertu egin behar da. Herri txikia da, eta hori dela eta, berezko butsuneak edota arazoak baditu gainera: hainbat baserriarren isolamendua, bakardadea, komunikazio eza, eta horrek guztiak ekarri ditzakeen kalteak eta butsuneak.


- **Eta kristau sinesmenari dagokionez?**

- Gero eta jende gehiago ari da Elizatik urruntzen. Gaur egun, batez besteko, hirurogeiren bat lagun bildu obi dira igandeko eukaristian. Baztertua eta zabarkitua gelditzen ari da Elizak, lanbide gutxiarekin. Alde borrokatik, sekularizazio prozesuak herri bandietan bezainbesteko eragina izan du herri txikietan, eta ez bakarrik gazteen artean, baita edadekoen artean ere.

- **Eta, egoera aldatzeko, zer?**

- Presentzia eta eragin handiagoa behar du gure herrian, jendea elkarbilduz, behar duen eta gazteekin lan eginez, eta gaurko arazoak erantzunak emanez.

PERTSONAIA EZKUTUA



Gure pertsonaia ezkutu berriak badauka aurrekoarekin parekotasunen bat edo beste. Ez dugu uste oraingo honetan ere asmatzea zaila gertatuko zaizuenik. Horregatik, aurrekoan bezainbeste gutun jasotzea espero dugu.

Andoaingo Txoko erretegiak, bi lagunentzako bazkaria edo afaria eskaini digu sari gisa. Beraz, animatu, eta zorte on!

Gutunak honako helbidera bidal itzazue, edota bestela utzi zuen mezua erantzungailuan. Tf: 30 07 32

AIURRI Dr. Huizi kalea 15. behea.
20140 Andoain.

ERRETEGIA - ASADOR

Erreserba telefonoa: 59 29 57


- Eguneko menua • Bazkari eta afariak kartara
- Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak...

LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA



**GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA**

GIRO EDERRA!!

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

HITZALDIAK**ANDOAIN**

Martxoak 15: EAk antolatutako "Politika plazara" hitzaldi saioa: **"Abertzaletasun demokratiko baterako estrategia baten oinarriak"**. Hitzlaria: **Joseba Arregi**. Kultur Etxean 20.00etan.

ASTEASU

Martxoak 20: Jakoba Errekondoren **"Etxe barruko landareak"** liburuaren aurkezpena Kultur Etxean 18.00etan.

ZIZURKIL

Martxoak 20: "Emakume basseritarrak" izenburupean Amaia Vázquez-en hitzaldia. Iriarte Etxean 17.30etan.

LEHIAKETAK**ANDOAIN**

Santa Krutz jaietako kartel iragarlea hautatzeko lehiaketa. A-5 tamainakoa eta koloretan egina. "Santa Krutz 96" testua egokitu behar zaio kartelari. **Lanak hilaren 29a baino lehen utzi behar dira Danena tabernan. 15.000 pezetako sari bakarra** izango da.

IKUSENTZUNEZKOAK**ADUNA**

Martxoak 19: Gaztetxoentzako filmea kultur aretara 19.00etan.

Andoaingo Eusko Alkartasuna

Jende askok esaten du, hauteskunde ondorenetan ez dela galtzailerik agertzen: denak irabazle. Ez dugu guk tentazio hori izan nahi, baina egia da EAk Andoainen 1994ko europar parlamenturako bozketan izan zuela beharadarik handiena, 800 boto eskas lortu zituelarik.

Orduan, 1.000 boto inguruko muga jarri genion geure buruari, Euskal Herri eta Andoainerako hauteskudeetan emaitza onak lortu ahal izateko. Joan den martxoaren 3an, 1.000 botorik heldu ez baginen ere, inguruan izan ginen, eta beraz, irabazi ez, baina eutsi egin diogula esan behar.

Hauteskude aldrebesak EArentzat

Hauteskunde orokor guztiak izaten dira EA bezalako alderdiontzat aldrebes samarrak. Oraingoan, zailtasunak areagotu egin dira: batetik, estatuan eskuina eta ezkerrean artean izandako polarizazioagatik; bestetik, Xabier Albisturrek 93an EA-EuFren izenean lortu bazuen ere, PNVra pasatzerekin, ahotsik gabe utzi zuen EA, eta ondorioz, Joseba Azkarragak

GAL eta korrupzioaren aurka eta Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde jorratzen hasitakoildoak ez du jarraipenik izan. Gainera, 93ko hauteskudeetan EA eta EuE izan ginen elkarrekin eta oraingoan bakarrik izan gara. EuFeko hautesle batzuk, argi denez, PNVri eman diote botoa eta gutxi batzuk EAri. Pentsatzekoa da botorik eman gabe ere gelditu direla beste batzuk, eta gure erronka (abertzale guztiona) hautesle horiek erakarri eta abertzale ez direnei ere geure proiektua garbi eta pragmatikoki adieraztea izango da hemendik aurrera, geure gizar-tean, gaindiezinezko muga eta hausturarik sor ez dadin.

Bienbitartean, EAri botoa eman eta geure eskaintza, geure lana eta geure alderdikide eta hautagaiengan jarritako konfidantza mila aldiz eskertu. Zaila bazen ere, 93an sortutako etena gainditu eta ordezkapena berriro lortu dugu, baina ez gaude geldi: sinesgarritasuna eta Euskal Herriak aurrera egin dezan, inguruko proiektu tinko bezain baketsua jorratzen jarraitzen dugu egunero.

IRAKURLEAREN TXOKOA

AIURRIK aurrerantzean ere gogo onez jarraituko du irakurleen gutunak jasotzen. Hemendik aurrera ordea, ezingo dira 20 lerro baino luzeagoak izan. Gogoratu, beti bezala, izenpe-teaz gain, bidaltzailearen datu pertsonalak.

KOMIKIA

